

2007ko abenduaren 18an, ASTEARTEA, arratsaldeko ZORTZITAN, Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan egingo den Ohiko Batzarrera deitzen zaitugu, ondoren aipatzen diren gaiak aztertzeko.

EGUNEKO AZTERGAIAK.

- 1.-2.007KO URRIAREN 30EKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.
- 2.- ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.
- 3.- 2/2007 ZENBAKIA DARAMAN KREDITU ALDAKETA TRANSFERENTZIEN MODALITATEAN ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.
- 4.- IGOGAILUAREN ZERTIFIKAZIOEN ONARPENAK, BIDEZKOA BADA.
- 5.- ELA SINDIKATUAK LANGILEEN UDALHITZ HITZARMENAREN INGURUAN AURKEZTURIKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA.
- 6.- LANBERRI ETA ZABALBERRI ALDEKO LURSAILEN ADJUDIKAZIOA ONARTZEA.
- 7.- HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN MENPEKO IKASTETXEAK DAUDEN UDALAREN JABETZAKO ERAIKINETAN OBRAK EGITEKO DIRULAGUNTZAREN ESKAERA EGITEA.
- 8.- HILERRIKO OBREN ESLEIPENA, BIDEZKOA BADA.
- 9.- ZENBAIT LOKALEN ESKAEREN AZTERKETA.
- 10.- ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.
- 11.- ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA
- 12.- ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.
- 13.- ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.
- 14.-GALDE ERANTZUNAK.

Aduna, 2007ko abenduak 13.

ALKATEA.

2.007KO ABENDUAK 18.

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

Arantza Aburuza Alkorta.

Jose Antonio Irazu Mendizabal.
Miren Aburuza Alkorta.
Josu Amilibia Alsua.
Iñaki Aristeta Gurrutxaga.
Iker Iturrioz Lekuona.
Ainara Iturrioz Lekuona.

Bertaratu gabea:

Iñor ez.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Adunako Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta zazpiko abenduaren hemezortziko hogeitau ordu eta hamar minutu izanik, Adunako Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

LEHENENGO PUNTUA:

2.007KO URRIAREN 30EKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.

Alkateak 2007ko urriaren 30eko aktaren berri ematen du eta aurrean aipaturiko zinegotziek aho batez onartzen dute.

BIGARREN PUNTUA:

ZENBAIT DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak azken Plenoa egin zenetik ondoren aipatzen diren Dekretuak eman dituela jakinerazten du:

1.- 2.007ko 3.hiruhilabeteko ur hornidura zerbitzuagatikoko tasaren errolda onartzea (109/2007 Alkatetza Ebazpena).

2.- Aragi Bulegoak, S.L. Adunako H.I.B. 1.4 arean lokala garaje bezela erabiltzeko tramitatzen ari den espedienteari hasera ematea (110/2007 Alkatetza Ebazpena).

3.- Juan Goikoetxea Albisu Jaunari Adunako Zubitxiki Industriguneko 16.zenbakian nekazaritza, lorezaintza eta berdeguneetara bidertutako zenbait produktuen salmenta eta banaketa iharduerarako establezimendua irekitzeko baimena ematea (111/2007 Alkatetza Ebazpena).

4.- Ignacio M^a Arruti Jauregui SS-01402-VE matrikuladun ibilgailuaren 2.007 urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuari buruzko exentzioa onartzea (112/2007 Alkatetza Ebazpena).

5.- Mirari Garmendia Gaunari Andereari Adunako Herri Eskolaren izenean, Kultur aretoa erabiltzeko baimena ematea (113/2007 Alkatetza Ebazpena).

6.- Leandro Galatasek 1.8 HEA alderdiaren barruan Adunako herriguneko ingurubidea egiteko izapidetzen ari garen desjabetzapen espedientearen barruan tarteraturiko alegazioa ezatea (114/2007 Alkatetza Ebazpena).

7.- 2.007 urteari dagokion zaborra eta estolderiaren errolda onartzea (115/2007 Alkatetza Ebazpena).

8.- Adunatik Sendavivara egindako autobus bidaia, Udalari dagokion zatia ordaintzea (116/2007 Alkatetza Ebazpena).

9.- 2.007ko azaroaren 19tik 25era Adunan ospatuko den Kultur asterako 1.200 € aurreratzea (117/2007 Alkatetza Ebazpena).

10.- Remedios Lekuona Andereak Agerre baserriaren barruan egin behar dituen obretarako baimena ematea (118/2007 Alkatetza Ebazpena).

11.- 2.007ko azaroaren 19tik 25era Adunan ospatuko den Kultur asterako 800 € aurreratzea (119/2007 Alkatetza Ebazpena).

12.- Romen, S.L-ri Uparan Industriguneko zikinkeriak kentzeko errekerimentua (120/2007 Alkatetza Ebazpena).

13.- Aragi Bulegoak Adunako H.I.B. 1.4 arean lokalak garaje bezela erabiltzeko tramitatzen ari den espedientearen barruan, obra eta iharduera baimenak ematea (121/2007 Alkatetza Ebazpena).

14.- Ignacio Solano Jaunari Adunako Bulandegi Industrieguneko 1.zenbakian, “ Hornos de Panadería y Pastelería” iharduera aurrera eramateko, proiektua aurkezteko errekerimentua (122/2007 Alkatetza Ebazpena).

15.- Koldo Izagirre Jaunari Adunako Urtaki Industrieguneko 3.zenbakian, “ venta al por mayor y por menor de suministros industriales y maquinaria y reparación y mantenimiento de maquinaria e instalaciones industriales” iharduera aurrera eramateko, proiektua aurkezteko errekerimentua (123/2007 Alkatetza Ebazpena).

16.- Bulandegi Industrieguneko 6.zenbakian, iharduera aurrera eramateko, proiektua aurkezteko errekerimentua (124/2007 Alkatetza Ebazpena).

17.- Zubitxiki Industriegunean lurreko ibilgailuen ordezeko pieza eta osagarrien txikitazko salmenta iharduerarako errekerimentua (125/2007 Alkatetza Ebazpena).

18.- Urtaki Industrieguneko 24.zenbakian, iharduera aurrera eramateko, Designhouses Arq e Int, S.L-ri proiektua aurkezteko errekerimentua (126/2007 Alkatetza Ebazpena).

19.- Uparan Industrieguneko ROMEN, S.L- ren lurretan kokaturik dagoen Daniel Barcos enpresari iharduera aurrera eramateko proiektua aurkezteko errekerimentua (127/2007 Alkatetza Ebazpena).

20.- Xavier Aramburu Irazu Jaunari Construcciones Lantegui, S.L.-ren izenean, Uparango G-1 Cicarsa Area 12ko partzela industrialean “báscula de peaje”-a instalatzeko baimena (128/ 2007 Alkatetza Ebazpena).

21.- Mari Jose Baltasar Alberro Andereari Lardigain etxeke lurretan dagoen ardintzako borda zabaltzeko baimena (129/2007 Alkatetza Ebazpena).

22.- Ibaiondo Industrieguneko 5.zenbakian iharduera aurrera eramateko, SOINTEK enpresari proiektua aurkezteko errekerimentua (130/2007 Alkatetza Ebazpena).

23.-. Amaia Quevedo Garro Andereari euskera ikastaroa egiteagatik 200 €-tako laguntza ematea (131/2007 Alkatetza Ebazpena).

24.- Construcciones y Excavaciones Zizurkil, S.L-ren izenean dagoen M-8459-JJ matrikuladun ibilgailuaren zergaren zati proportzionala itzultzea (132/2007 Alkatetza Ebazpena).

25.- Construcciones y Excavaciones Zizurkil, S.L-ren izenean dagoen SS-0511-AF matrikuladun ibilgailuaren zergaren zati proportzionala itzultzea (133/2007 Alkatetza Ebazpena).

26.- Jose Antonio Barranco Llorenteren izenean dagoen SS-9128-Z matrikuladun ibilgailuaren zergaren zati proportzionala itzultzea (134/2007 Alkatetza Ebazpena).

27.- Alejandro Madinabeitia Ruizen izenean dagoen 6167-CGV matrikuladun ibilgailuaren zergaren zati proportzionala itzultzea (135/2007 Alkatetza Ebazpena).

28.- Daniel Barcos, S.A.-ren izenean dagoen SS-6700-AK matrikuladun ibilgailuaren zergaren zati proportzionala itzultzea (136/2007 Alkatetza Ebazpena).

29.- Daniel Barcos, S.A.-ren izenean dagoen SS-7590-AS matrikuladun ibilgailuaren zergaren zati proportzionala itzultzea (137/2007 Alkatetza Ebazpena).

30.- Poldi, S.L.-ren izenean dagoen SS-4432-AF matrikuladun ibilgailuaren zergaren zati proportzionala itzultzea (138/2007 Alkatetza Ebazpena).

31.- Bartolome Ormaechea Eloseguiaren izenean dagoen SS-9194-AN matrikuladun ibilgailuaren zergaren zati proportzionala itzultzea (139/2007 Alkatetza Ebazpena).

32.- Goiko Dos Mil, S.L.-ren izenean dagoen 9102- FPJ ibilgailuari dagokion zergaren diferentzia ordaintzeko errekerimentua (140/2007 Alkatetza Ebazpena).

33.- Eydimen Dos Mil, S.L.-ren izenean dagoen 7209-FSR ibilgailuari dagokion zergaren diferentzia ordaintzeko errekerimentua (141/2007 Alkatetza Ebazpena).

34.- Troargra, S.A.-ren izenean dagoen 1396-PTT ibilgailuari dagokion zergaren diferentzia ordaintzeko errekerimentua (142/2007 Alkatetza Ebazpena).

35.- Apro Inoxidables, S.A.-ren izenean dagoen 7988-FVL ibilgailuari dagokion zergaren diferentzia ordaintzeko errekerimentua (143/2007 Alkatetza Ebazpena).

36.- Aitor Iparragirre Arrietak E6089-BDV ibilgailuari dagokion zergaren diferentzia ordaintzeko errekerimentua (144/2007 Alkatetza Ebazpena).

37.- Sidras Aburuza, S.L.-k E0844-BDZ ibilgailuari dagokion zergaren diferentzia ordaintzeko errekerimentua (145/2007 Alkatetza Ebazpena).

38.- Pedro Rodríguez Jaunari bere etxebizitzako partzelan txabola egiteko eta legezatzeko eskaera (146/2007 Alkatetza Ebazpena).

39.- Tolosaldea Garatzeneko bilerarako delegazioa (147/2007 Alkatetza Ebazpena).

HIRUGARREN PUNTUA:
2/2007 ZENBAKIA DARAMAN KREDITU ALDAKETA TRANSFERENTZIEN
MODALITATEAN ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Idazkariak 2/2007 zenbakia daraman kreditu transferentzien modalitatean 84.597,74 €-tako kantitatean kreditu aldaketa onartzea proposatzen du eta dagokion espedientearen berri ematen du. Proposamenaren laburpena ondorengo da:

KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako Kreditua
1.0000.601.511.00.03	1.8 unitateko hiritartze proiektua	159.500,00	85.847,74	74.902,26
GUZTIRA		159.500,00	85.847,74	73.652,26

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1.0000.120.121.00.01	Funtzionarioen ordainketak	88.000,00	3.400,00	91.400,00
1.0000.162.121.00.05	Funtzionario eta korporatib ase	2.000,00	350,00	2.350,00
1.0000.221.433.00.01	Argien ordainketa:argiztapen	13.000,00	1.400,00	14.400,00
1.0000.221.441.00.02	Ur hornidura	5.000,00	1.500,00	6.500,00
1.0000.222.121.00.01	Telefonia: Udalekoa	2.500,00	500,00	3.000,00
1.0000.421.451.00.01	Mank eta Konts: Aiurri	4.000,00	10,00	4.010,00
1.0000.417.452.00.01	Olaederra Polikiroldegia	1.000,00	300,00	1.300,00
1.0000.623.121.00.02	Igogailua	40.000,00	40.000,00	80.000,00
1.0000.226.454.00.06	Iharduera sozio kulturalak	18.000,00	5.500,00	23.500,00
1.0000.227.121.00.07	Hirigintz aholkularitza	12.000,00	1.300,00	13.300,00

1.0000.220.121.00.01	Bulego materiala	3.000,00	100,00	3.100,00
1.0000.210.511.00.01	Bide publikoen konponketa	3.000,00	1.000,00	4.000,00
1.0000.210.533.00.01	Mendien konponketa	4.000,00	4.500,00	8.500,00
1.0000.211.121.00.01	Udal eraikuntzen konponketa	8.000,00	1.000,00	9.000,00
1.0000.222.121.00.04	Faxaren ordainketa	200,00	100,00	300,00
1.0000.224.121.00.02	Moto eta kotxearen aseguru	800,00	37,18	837,18
1.0000.227.453.00.01	Karobien garbiketa	0,00	1.844,96	1.844,96
1.0000.227.121.00.99	Fotokopiadorearen mantenimen	1.300,00	200,00	1.500,00
1.0000.322.011.00.01	Interesen ordainketa	28.300,00	3.300,00	31.600,00
1.0000.417.121.00.01	Artxibatzailearen kuota ordaink	1.200,00	200,00	1.400,00
1.0000.421.313.00.01	Mankomunitate eta Kont: Eusk	2.500,00	120,120	2.620,20
1.0000.421.442.00.01	Mank eta Konts: Tolosalde Ma	14.200,00	1.283,80	15.483,80
1.0000.421.721.00.01	Mank eta Konts: Tolo Garatzen	5.600,00	3.646,00	9.246,00
1.0000.609.121.00.01	Udaletxearen kargu zenbait obra	40.000,00	3.050,00	43.050,00
1.0000.643.121.00.01	Irisgarritasun plana	0,00	11.205,60	11.205,60
	GUZTIRA	297.600,00	85.847,74	383.447,74

Kreditu aldaketa hau aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez onartzen du.

LAUGARREN PUNTUA:
IGOGAILUAREN ZERTIFIKAZIOEN ONARPENAK, BIDEZKOA BADA.

1.- Idazkariak, Construcciones Manuel Echaide, S.L, Udal Aparejadorea den Javier Santos eta Udal Arkitektoa den M.A Irazabalbeitia Jaunak sinaturiko Adunako igogailuko obren 49.003,83 €-tako (BEZa barneratuta) 1. zertifikazio eta fakturaren berri ematen du.

Zertifikazio hau aztertu ondoren, Udaltzako, aho batez, zertifikazio eta faktura onartzea eta ordaintzea erabaki du.

2.- Idazkariak, Construcciones Manuel Echaide, S.L, Udal Aparejadorea den Javier Santos eta Udal Arkitektoa den M.A Irazabalbeitia Jaunak sinaturiko Adunako igogailuko obren 9.489,72 €-tako (BEZa barneratuta) 2. zertifikazio eta fakturaren berri ematen du.

Zertifikazio hau aztertu ondoren, Udaltzako, aho batez, zertifikazio eta faktura onartzea eta ordaintzea erabaki du.

3.- Idazkariak, Ascensores Eguren-ek Adunako igogailua erosteko 13.195,00 €-tako (BEZa barneratuta) 1. zertifikazioaren berri ematen du.

Zertifikazio hau aztertu ondoren, Udaltzako, aho batez, zertifikazio hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

4.- Idazkariak, Ascensores Eguren-ek Adunako igogailuko erosteko 5.655,00 €-tako (BEZa barneratuta) 2. zertifikazioaren berri ematen du.

Zertifikazio hau aztertu ondoren, Udaltzako, aho batez, zertifikazio hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

**BOSTGARREN PUNTUA:
ELA SINDIKATUAK LANGILEEN UDALHITZ HITZARMENAREN
INGURUAN AURKEZTURIKO PROPOSAMENAREN AZTERKETA.**

Mahai gainean geratzen da.

**SEIGARREN PUNTUA:
LANBERRI ETA ZABALBERRI ALDEKO LURSAILEN ADJUDIKAZIOA
ONARTZEA.**

Mahai gainean geratzen da.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:
HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN MENPEKO IKASTETXEAK
DAUDEN UDALAREN JABETZAKO ERAIKINETAN OBRAK EGITEKO
DIRULAGUNTZAREN ESKAERA EGITEA.**

2.007ko azaroaren 14ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udalaren jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketari buruz emandako Aginduari jarraituaz, Udalbatzak, aho batez, Adunako Herri Eskolan zenbait obra hau da, leihoak aldatu, margoketa lanak.... egiteko dirulaguntza eskaera egitea onartu du, obren aurrekontua 23.808, 70 e-takoa delarik.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:
HILERRIKO OBREN ESLEIPENA, BIDEZKOA BADA.**

Herriko hilerria beteta dagoela eta 1.998an hasitako obren proiektua jarraituaz, Landarri, S.L. enpresak 2.007ko apirilaren 24an aurkezturiko 14.897,20 €+ %7ko aurrekontua eta proposamena aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez eta Idazkariaren txostena kontuan izan ondoren, aipaturiko aurrekontua onartzea eta obrak Landarri, S.L-ri esleitzea erabaki du 14.897, 20 €+%7ko kantitatean.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT LOKALEN ESKAEREN AZTERKETA.**

1.- Jon Ander Belamendia eta beste adunatar gazte batzuk aisialdirako.... aurkezturiko lokal eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, eskaera onartzea eta gaia Udaletxean aztertzea erabaki da baldintzak, arauak... ezartzeko.

2.- Adunako Ezker Abertzaleak, bere gauzak jasotzeko, bilerak egiteko, ekintzak antolatzeko... aurkezturiko lokal eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, eskaera onartzea eta gaia Udaletxean aztertzea erabaki da, baldintzak, arauak.... ezartzeko..

**HAMARGARREN PUNTUA:
ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.**

1.- Aiztondo bailarako Udalek, giza eskubide guztien alde Euskal Presoak Euskal Herriraren inguruan aurkezturiko mozioa aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, zera erabaki du:

1.-Herri honek hain beharrezkoa duen normalizazio politikorako arrazoi politikoak tarteko espetxean dauden gizon eta emakumeak euren sorlekuetatik urrun izateak ez duela laguntzen gatazka konpontzen, areagotu baino ez duela egiten.

2.-Ez dela giza legezkoa, espetxean egoteari, senide eta lagunei zigor erantsiak ezartzea, astebururo kilometro pilo bat egin behar izatekoa 40 minutuko bisita bat

egiteko. Dispersioak eragiten dituen istripuak eta kalteak asko kezkatzen gaituzte. Gertu ditugu horren adibidez, Pello Zelarain Alicanten esaterako.

3.-Euskal presoak Euskal Herrian egoteak, eurenak diren oinarrizko eskubideak onartzeak, Herri honen baketze eta normalizazioan aurrerapausoak suposatuko lituzkeen bezala, dispersioaren aitzakiapean ematen diren beste hainbat eskubide urraketa ez gertatzeko modua izango litzateke.

4.-Isolamenduaren amaiera, gaixorik dauden presoek berehalako askatasuna, euren zigorretan ematen ari diren oinarri batere juridikorik gabeko erabakiak, Parot doktrina bezala ezagutua izan dena, oinarri oinarrizkoak diren eskubideen bortxatzea iruditzen zaizkigu eta hauen bermatzea eman dadin lan egin behar dugu. Datuak nahiko larriak dira gaur egun.

5.- Euskal presoek espetxeetan egonik ere oinarrizko eskubide batzuk dituzte, ikasteko eskubidea, komunikaziorako eskubidea, osasun eskubidea, asistentzia juridiko egoki baterako eskubidea.... behin eta berriz oinarrizkoak izanik ere bermatzen ez direla ikusten ari gara.

6.-Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko idatzi hau izenpetzen dugun udalok gure ahaleginak egiteko konpromisoa berresten dugu.

7.-Idatzi hau izenpetzen dugun udalok, herritar guztiak 2.007ko abenduaren 31an Zizurkilgo plazan hasi eta Villabonako plazan bukatuko den manifestazioan parte hartzera deitzen ditugu. Honela, udal bakoitzak bando bidez idatzi honen jakinarazpena helaraziko die herritar guztiei.

8.-Jakinarazpen hau bera jasoko dute baita komunikabide guztiek, Espainiako Barne Ministerioak eta Gasteizko Parlamentuko Giza eskubideen Batzordeak, hala nola Arartekoak eta komunikabide guztiek.

2.- Nazio bat, selekzio baten inguruan Esait-ek aurkezturiko mozioa aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, mozioa aztertu ondoren, zera erabaki du:

1.- Euskal Herria, Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Zuberoak osatzen duten nazioa da. Nazioa den heinean, Euskal Herriko kirolariak, beren nazioaren koloreekin euskal selekzioa ordezkatzuz, nazioarteko txapelketan parte hartzeko eskubidea dute.

2.- Udalbatza honek eskubide horren ukazioa arbuiatzen du: batetik, kirolariei, Euskal Herria ordezkatzuz, gainontzeko munduko nazioetako kirolarien antzera, ofizialki lehiatzea ukatzen zaielako, eta bestetik, Euskal herritarrok nazioartean gure ordezkaritza izateko dugun eskubidea urratzen duelako.

3.- Euskal Herriari ofizialki ordezkaturia izateko eskubidea ukatzen zaionean, Euskal Herriaren kanpo protekzioa eta, finean, nazio baten existentzia ukatu nahi da. Beraz, Udaltzuta honek Euskal herritarren eskubide kolektibo eta indibiduaen urraketa arbuiatzen du.

4.- Zentzu honetan, herritarrei dei egiten diegu ESAIT-ek abenduaren 29an, Bilbon, “EUSKAL HERRIA, nazio bat, selekzio bat “ lelopean antolatutako ekimenetan, eta, zehazki, arratsaldean egingo den manifestazioan parte hartzeko, egun hori euskal selekzioaren (ofizialtasunaren) aldeko aldarrikapenerako eguna izan dadin.

5.- Udaltzuta honek, herritarrek, abenduaren 29an Bilboraino aldarrikapena eramane dezaten erraztuko du: eta erabaki honen berri herritarrei jakinarazi die.

3.- Euskal Herriaren eskubideen alde 18/98 epaiaren inguruan ANV-k aurkezturiko mozioa aztertu ondoren Udaltzak, aho batez, zera erabaki du:

1.- Udaltzuta honek irmoki salatzen du 18/98 epaia eta atzean dagoen Euskal Herriaren aurkako eraso. Espainiar Estatuak, epai honen bitartez, Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lanean ari diren herritar eta kolektiboak kriminalizatzen ditu, Euskal Herriaren independentzia bultzatzen duen mugimendu politikoa jazartzen du. Independentismoa jokaleku politikotik atera nahi du herri honi iruzurra ezarri azmoz.

2.- Udaltzuta honek argi adierazi nahi du: Espainiar estatuan ez dago demokraziarik ezta Euskal Herriarentzako etorkizunik ere. Espainiar estatuak bere Konstituzioa eta salbuespen legedia inposatzen du Euskal Herria ukatzeko, konponbide demokratikoari ezetz esateko, herri honen eskubideei ateak itxteko.

3.- Udaltzuta honek konponbide demokratikoa aldarrikatzen du, Euskal herritarrok egitasmo politiko guztien artean bere etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidean oinarrituko den konponbidea, hain zuzen ere. Hortaz, udaltzuta honek ez du onartuko herri honi iruzurrik inposatzea.

4.- Udaltzuta honek bat egiten du Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiteagatik 18/98 sumarioan auziperatu eta zigortuak izan diren gizon emakume guztiekin, eta elkartasun zein babes osoa agertzen die.

5.- Udaltzuta honek 18/98 epaia eta Euskal Herriaren aurkako etengabeko erasoeri erantzuteko antolatuko diren mobilizazio guztiekin bat egin eta horietan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei.

6.- Udaltzuta honek Euskal Herriaren eskubideen alde lan egiten jarraitzeko deiarekin bat egin eta horretara animatzen ditu udalerriko talde, kolektibo eta herritar oro.

7.- Onartutakoaren berri emango zaio herritar orori zein komunikabideei.

**HAMAİKAGARREN PUNTUA:
ZENBAIT DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

1.- Ramiro Dos Santos Regadak bere egoera ekonomiko larriari aurre egiteko aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, eskaera ez onartzea erabaki du.

2.- Adunako Herri Eskolak 2.007 urtean zehar sortutako beharrei aurre egiteko aurkezturiko dirulaguntza eskaera aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, 1.200 eurotako dirulaguntza ematea erabaki du.

**HAMABIGARREN PUNTUA:
ZENBAIT FAKTUREN AZTERKETA.**

1.- Construcciones Trati, S.L. Udaletxeak eskaturik egin dituen hirigintz lanen zabalpen bezela herriko plaza 9 zenbakiko etxean eta inguruan egindako lanengatik aurkezturiko 5.508,18 e-tako faktura aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez, faktura hau onartzea eta ordaintzea erabaki du.

**HAMAHIRUGARREN PUNTUA:
ALKATEGOAREN INFORMAZIOA.**

Alkateak azken Plenoa egin zenetik gertatu diren gai interesgarrienen eta hartutako erabakien berri ematen du eta Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

Beste Aztergairik gabe, hogeita bi ordu direnean, Batzarra amaitu da, eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

